

22.– JAINKO ERREMENTARIA (VULCANO) (ERROMA)



Jainkoen nagusi zan Jupiter eta Juno onen emaztea. Juno'gandik jaioa zan Bulkano suaren jainkoa.

Bein baten Jupiter eta Juno asarratu egin ziran eta demanda aundia eukun senar-emazteen artean. Bulkano sartu zan bakeak egitera. Baiña ordu txarrean gizajoa: Biak aurka eukazalakoan, sutan jarri zan bizi-bizi Jupiter eta semeari anka batetik eldu eta bota eban zeruen barrura amurruz. Or ibili zan Bulkano gizajoa zeruan zear, eta azkenean Lemos'ko ugartearen jo eban lurra eta iztarra apurtu eban. Errezkero beti erren ikusiko dogu Bulkano.

Bulkano zan suaren jainkoa eta bere sutegia Etna mendiaren barruan eukan. Lan ederrak egiten ebazan sutegi onetan, bai burdiñez eta bai urrez eta zidarrez. Beste jainko guztiak beregana joaten ziran tresna bereizi bat bear ebenean eta Bulkano'k pozik egiten eutsen eskatzen eben lana. Bera oso ertitsua zan eta egiten ebazan lanak be ikusgarriak benetan.

Sutegia iziotu, meatzak urtu eta goritu lenengo eta gero ingude-gaiñean malluka moldatu ziran bere lanak

eta orretan ebillala, Etna mendiaren erpiñeko zulotik sekulako kea, sua eta garrak agiri ziran, baita, sarritan, sutegiko ondakiñak be.

Bulkano'gandik datorkie gizakiai sutegiko lanerako kemena ta trebetasuna eta bera zan gizakia erabilten eben suari indarra emoten eutson jainkoa. Errena izan arren, indartsua zan eta beste jainkoak bildurra eutsoen.

Egun baten Juno bere amak eskatuta erakutsi eban noraiñokoa zan bere indar ori: Janto ibaia urak aunditurik etorrela, bere muga-barrura sartu eta itxasora zuzen joatera beartu eban. Sua atera eban sutegitik eta Janto ibaiaren aurka bota su ori, urgaiñean joiazan zugatzak egurrak eta saborrak erre ebazan eta ur aundiak irakiten jarri.

Ibaiko arraiñak ezin jazan izan eben beroa eta lurrera jauzi egin eben. Janto ibaiak ezin amatau izan eban sua eta Bulkano jainkoaren menpean geratu zan.

OLAZAR'tar Martin'ek